



Arartekoaren 2019S-2699-17 Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 10ekoa. Horren bitartez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera bat ukatu izana. Izan ere, erakunde honen ustez, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen arabera, irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde baten gizarteratzeko programa batean parte har dezake interesdunak.

Aurrekariak

1.- Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, ez zegoelako ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu izanarekin.

Kexagileak 2017ko otsailean eskatu zuen prestazio hori. 2017ko maiatzaren 10ean, Lanbidek entzunaldi-izapidea igorri zion, eta, horren bidez, hauxe argitzeko eskatu zion: *"si está acogido en casa de amigos, si es así deberá estar empadronado en la vivienda donde reside en este caso estando en acogimiento por extrema necesidad"*.

2017ko uztailaren 7an, entzunaldi-izapideari erantzute aldera, alegazio-idatzi bat aurkeztu zuen interesdunak. Idazki horren bitartez azaldu zuen zer baldintzatan zegoen bizilekuari zegokionez. Zioenez, ez zuen bizileku egonkorrik ezin zuelako hura ordaindu, eta lagunek unean-unean etxean hartzen zuten.

Horrez gain, argitu zuen **erroldatuta zegoela**, 2015eko martxoaren 23tik, **benetan udalerrian bizi diren baina etxebizitza dutela egiaztatzen ez duten pertsonentzako Bilboko Udalak duen protokoloa aplikatu ziotelako**. Halaber, egiaztatu zuen aurreko urtean ere erroldatuta egon zela. Ordutik, Bilboko Udalaren erroldan izena emanda ageri da, **gizarteratzeko IZANGAI erakundearen etxebizitza** bati dagokion helbidean. Horri lotuta, kontua argitzen zuen erakunde horren idazki bat aurkeztu zuen kexagileak, baita Gizarteratzeko Programen Negoziatuko buruak sinatutako **Bilboko Udalaren baimena**, interesduna IZANGAIk adierazitako helbidean erroldatzeko eskaera onartu zuena, ere.

Ondoren, kexagilea IZANGAIren gizarteratzeko etxebizitza batera joan zen bizitzera. Han erroldatu zuten irailaren 19an, eta gaur egun han bizi da modu iraunkorrean. Irailaren 22an, Lanbidek ebazpena eman aurretik, horren berri eman zion enplegu erakunde autonomoari (Lanbideren sarrera-erregistroaren zenbakia: 2017/310300).



Hala eta guztiz ere, Lanbidek prestazioak jasotzeko eskubidea ukatu zion 2017ko urriaren 22ko ebazpenaren bidez, honako arrazoi hau zela-eta: *“No cumplir el requisito de ESTAR EMPADRONADO DONDE VIVE (EMPADRONADO EN VIVIENDA DE IZANGAI, PERO SEGÚN INFORME DE LA ENTIDAD ACOGIDO EN CASA DE AMIGOS).”*

2017ko azaroaren 7an, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen enplegu erakunde autonomoan.

2017ko urriaren 27an, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren beste eskaera bat aurkeztu zuen, eta 2018ko otsailaren 20an aitortu zioten —eskaera egin zen eguna da ondorioetarako data—.

2.- Kexa behar bezala izapidetze aldera, Arartekoak azaldutako egitateen inguruko informazio-eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

Hain zuzen, honako kontu hauei buruzko azalpenak eskatu zitzaizkion Lanbideri:

- a) *Hori dela eta, Lanbidek interesdunari prestazioa ukatzea erabaki du, herritar horrek hasieran entzunaldi-izapidea igortzea eragin zuen arrazoia (bazitekeela baldintzak bete ez izana) konpondu badu ere.*
- b) *Hori dela tarteko, espediente honetan, Lanbidek ez du baliozkotzat hartu kexagileak aipatutako gizarteratzeko programan (gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte-erakundeek eta Bilboko Udalak modu koordinatuan garatzen dute hori) parte hartu duela egiaztatzen duen dokumentazioa..*
- c) *Berraztertze errekurtsoa aurkeztu dela-eta, espedientea gaur egun zer egoeratan dagoen. Hala badagokio, berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren kopia.*
- d) *Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.*

3.- Lankidetzeta-eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak azaldu zuen arrazoi honengatik ukatu zizkiola prestazioak kexagileari:

“xxxxx jaunak 2017ko martxoaren 14an aurkeztu zuen DSBE eta EPO emateko eskabidea.



*Eskatzaileak 2017ko uztailaren 7an erantzun zion entzuteko izapideari, eta azaldu zuen zer egoeratan zegoen bizitokiari zegokionez; hain zuen, jakinarazi zuen **ez zuela bizitoki egonkor bat eta lagunengana jotzen zuela eta hauek aldi batean hartzen zutela harreran.***

*DSBEren 18/2008 Legearen 16. artikulua zehazten ditu eskubidearen titular izateko baldintzak, eta horien artean, honako hauek: a) **Bizikidetza-unitate bat osatzea**; erregelamendu bidez zehaztuko da unitateak zenbat denbora lehenagotik eratu behar duen eta zer salbuespen egon daitezkeen, eta b) **Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea eta benetan bizitzea**, errekurtsogilearen kasuan, 5 urtez. Legeak horrela aginduta, baldintza horiek bete beharrekoak dira eskaera egiten denean.*

*DSBEren 147. Dekretuaren 5. eta 9. artikuluek aipatutako arauak garatzen dituzte, eta horien harira, ikusi dugu errekurtsogileak eskaera aurkeztu zuela **premia larriko harrera tipologiako bizikidetza-unitatetzat har zezaten** (dekretuaren 5.3 artikuluan jasotzen da egoera hori). Alabaina, **ez dugu Oinarriko Gizarte Zerbitzuen txostenik jaso premia larriko egoera hori berresteko**. Era berean, Izangai elkarteak ez zuen benetako bizitokia egiaztatu, errolda baino ez.*

*Bestalde, 9.1 artikulua lehen baldintza gisa ezartzen du **bizikidetza-unitate bat eratu behar dela eskabidea egin baino gutxienez urtebete lehenago**, eta zazpi salbuespen-egoera zehazten ditu, baina errekurtsogilea ez dago horietako bakar batean ere.*

*Horren guztiaren ondorioz, errekurtsogileak, eskabidea egiteko unean, ez zituen betetzen DSBE prestazioa jasotzeko eskubidearen titular izateko baldintzak; izan ere, bere benetako bizitokia eta erroldatutako bizilekua ez datoz bat, eta, era berean, **ez du inolaz ere egiaztatu bizikidetza-unitatea osatzen duenik**, ez eta bizikidetza-unitate hori urtebete lehenago eratu zuenik, araudiak eskatzen duen moduan. Hori guztia berretsita geratu da errekurtsogileak uztailaren 7an idatziz erantzun zuen entzuteko izapidearen ondoren.*

*2017ko irailaren 22an, interesdunak **Izangairen etxebizitza batean erroldatu izanaren beste ziurtagiri bat aurkeztu zuen**, eta une horretatik aurrera benetako bizilekua hori izango zuela argudiatu zuen. Alabaina, baldintza hori ezin da baloratu DSBEren eskaera honetan, legeak hala aginduta*



eskubidearen titular izateko baldintzak (kasu honetan bizikidetz-unitatea eratzea) eskaera egiteko unean bete behar baitira. Horrenbestez, 2017/10/19an ezezteko ebazpena eman zen eta, beraz, ezin da aintzartu hartu errekurtsogilearen alegazio hau: "bizilekua aldatzeak zuzendu egiten du Lanbidek prestazioa ez emateko jakinarazitako egoera"; izan ere, bizikidetz-unitatea eratzea ez da egoera bat, ezinbesteko baldintza bat baizik, eskaera egiteko unean nahitaez bete beharrekoa. **Baldintzak betetzea ez da zuzendu daitekeen kontu bat; baldintzak bete egiten dira edo ez dira betetzen. Baldintzak egiaztatzea, hori bai zuzendu daiteke, agiriak edo ziurtagiriak aurkeztuta, adibidez.**

Errekurtsogileak bizitoki berriari loturiko beste eskabide bat aurkeztu beharko zukeen Lanbideren bulegoan, eta halaxe egin zuen 2017/10/27an, hau, bai, **onartu egin zitzaion 2018/02/20an**, eta eskaera egin zuen egunetik du eragina.

Interesdunak **gizarteratze-programa batean parte hartu izana egiaztatzen duten agiriak Lanbidek zergatik ez dituen baliozkotzat jo** azaltzeko errekerimenduari dagokionez, argitu beharrekoa da Lanbidek ez dituela balio gabetzat jo; besterik gabe, adierazi du **gai horrek ez duela zerikusirik eskaera ukatu izanarekin.**

Berraztertze errekurtsua ezezteko ebazpenaren kopia erantsi da. 2018ko uztailearen 10ean eman zen ebazpen hori."

Horrenbestez, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1.- Eskaera ukatu zuen 2017ko urriaren 22ko ebazpenak, kexa hau eragin duenak, hauxe dio arrazoen atalean: "**No cumplir el requisito de ESTAR EMPADRONADO DONDE VIVE (EMPADRONADO EN VIVIENDA DE IZANGAI, PERO SEGÚN INFORME DE LA ENTIDAD ACOGIDO EN CASA DE AMIGOS)**".

Enplegu erakunde autonomoaren erabakiak oinarri dituen argudioak, gure informazio-eskaerari erantzunez jasotako idazkian xehatutakoak, askotarikoak dira. Horiek guztiak Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legaren (18/2008,



abenduaren 23koa) 16. artikuluan ezarritako eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuaren (147/2010, maiatzaren 25ekoa) 5. eta 9. artikuluetan garatutako betekizunei lotuta daude.

-Alde batetik, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazkian berriz ere aipatu da eskatzaileak ez duela betetzen, eskaera egin zuenean, bai eta eskaera egin aurreko hiru urteetan ere, benetan EAEko udalerrri batean bizitzearen betekizuna; izan ere, eskaera egin zuenean ez zenez bizi erroldatuta zegoen lekuan —IZANGAIn etxebizitzan—, ezin da zehaztu benetan erkidegoan bizi ote zen.

-Bestalde, administrazioaren interpretazioarekin bat etorriz, eskaera egin aurretik urtebetez bizikidetzaren unitate independentea osatzearen betekizuna ere ez da betetzen; izan ere, ezin denez zehaztu pertsona hori benetan udalerrian bizi ote den, interesdunak ezin du egiaztatu nork osatzen duen bere bizikidetzaren unitatea.

Azkenik, testu horren arabera, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioak ez du zerikusirik eskaera ukatzeko eman diren arrazoiekin, edo, bestela esanda, ez dira baliozkoak egiaztatzeko betekizunak betetzen direla eta ez dietela eragiten diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko arrazoiei.

2.- Kontu horietako bakoitza aztertu aurretik, zehaztu beharra dago zer bideren bitartez eskatu duen eskatzaileak diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu diezaioten.

Izan ere, hizpide dugun kasuan, erakunde honen iritziz, ezin da aplikatu maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.3. artikuluan xedatutakoa. Hauxe dio artikuluko horrek:

“Era berean, bizikidetzaren unitate bat eratuko dute, beren premia larria dela medio, halakotzat hartuz artikuluko honen 1. paragrafoko c) idatz-zatien adierazitakoa, artikuluko honen 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako bizikidetzaren unitateren batek hartu dituen pertsonen, betiere:

-Harrerako unitateak nahiko baliabideak baditu bere oinarrizko gastuei aurre egiteko; ondorio horietarako ezingo dute Diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso;

-Hartutako pertsonen harrerako unitateko pertsonekin ez badute 1. paragrafoko b) idatz-zatien bildutako loturaren bat: ezkontza edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren bat, adopzioa, laugarren mailarainoko odola-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasuna, familiako harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa edo tutoretzapekoa;



-Unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko traturik ez dagoenean;

-Premia larriko egoera egiaztatzen duen erreferentziatzko Oinarrizko Gizarte Zerbitzu baten txostena dagoenean.

Kasu horietan, harrerako bizikidetzaren bereizitako bizikidetzaren unitate izaerari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da, harrera-egoera ahalbidetu zuten baldintzek jarraitzen badute, alde aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek txostena egin ondoren."

Egia da 5.1.c) artikulua bigarren paragrafoan ezartzen dela zer ezaugarri izan behar dituen pertsona batek premia larriko egoeran dagoela jotzeko. Esan bezala, artikulua hori aplikatzen zaie diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra denboraldi batez —12 hilabetez, eta beste 12 hilabetez luza daiteke— bizi denean beste bizikidetzaren unitate baten etxebizitzan, ez ordea gizarteratzearen alde lan egiten duen elkarte batek utzitako etxebizitza batean bizi denean.

Hizpide dugun kasuan, kexagilea ez zen benetan bizi IZANGAI gizarte-erakundeak ondorio horietarako erabilitako bizileku batean; aitzitik, elkarte horrek eskaintako gizarte-errola gozatzen zuen. Oso ohikoa izaten da hori gizarte- eta etxebizitza-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen artean, benetako bizileku bat izateko aukera gutxi baitute.

Arartekoak uste du ezinbestekoa dela hausnarketa bat egitea araudia hain zorrotz aplikatzearen inguruan, pertsona horiei erantzute aldera, eta haiek —diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu aurreko hiru urteetan EAEn modu egonkorrean bizi izan direla egiaztatu ezin dutela-eta— sistematikoki gizarte-babeseko euskal sistematik ez baztertzeko. Bestela, oso zaila izango litzateke pertsona horiek diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzea, gizarte-bazterketa larriko egoeran egonik ere, ezin izango luketelako egiaztatu errolatuta egoteari eta benetako bizilekuari lotutako baldintzak betetzen dituztela.

Hori dela eta, erakunde honen ustez, aztergai dugun kasuan, egokiagoa da dekretu horren beraren 6.2. b) artikuluan xedatutakoa aplikatzea. Hain zuzen ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren bizitokiari loturiko baldintzei dagokienez, honako hau ezartzen du artikulua horrek:



“Era berean, etxebizitzatzen edo bizitokitzen hartu ahalko dira bizileku kolektiboko honako esparru fisiko hauek, aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzak-unitateak modu independentean erabiltzen dituztenean: (...)

b) Aldi baterako harrera-zentroak, publikoak edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak, behar bezala baimendu eta homologatutakoak, itunpekoak, hitzartutakoak edo Administrazioak kontratatutakoak badira harrera-zerbitzu hori emateko edo irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeek sustatutakoak direnean, betiere harrera-baliabide hori itunpeko, hitzartutako edo Administrazioak kontratatutako gizarteratzeko edo gizarteratu eta laneratzeko beste programa batzuekin lotzen dituztenak.”

Eskaera egin zuenean, interesduna ez zen benetan bizi IZANGAren bizileku batean, baina egiaztatu du ondorio berak dituen —hau da, gizarte-prestazioak eskuratzeko balio duen— gizarte-errola zuela; halaber, erakunde horren gizarteratzeko programa batean hartu du parte, eta, hori frogatze aldera, hark jaulkitako egiaztagiria bat aurkeztu du (agiri horren arabera, kexagileak aktiboki hartu du parte adierazitako programan).

Horiek horrela, Arartekoaren iritziz, Lanbidek aintzat hartu behar luke eskatzaileak aurkeztutako elkarte horren txostena, egiaztatzen zuena interesduna gizarteratzeko programa batean parte hartzen ari zela.

Aurreko dekretuaren 29. artikuluan, betekizunak betetzen direla egiaztatzei aurkeztu behar den dokumentazioa aipatzen da. 1.g) atalean, 147/2010 Dekretuaren 6.2. artikuluan aurreikusitako betekizuna betetzen dela egiaztatzei balio duten dokumentu jakin batzuk aipatzen dira. l) eta m) ataletan, eskatzaileak espedientean sartu nahi dituen edo administrazioak betekizunak betetzen direla egiaztatzei eska ditzakeen dokumentuak aurkeztei aukera aurreikusten da.

Halaber, garrantzitsua da aipatzea prestazioen eskatzaileak eskaerarekin batera igorri zuela Gizarteratzeko Programen Negoziatutako buruak sinatutako **Bilboko Udalaren baimena**, interesduna IZANGAik adierazitako helbidean errolatzeko eskaera onartu zuena.

Bilboko Udalak hainbat urte daramatza gizarteratzeko protokolo bat garatzen, eta, horren bidez, gizarte-erakundeak laguntzaz, gizarteratzeko lanak egiten ari diren pertsonen udal-eroldan izena ematei aukera ematen zaie. Lanbidek badaki



programa hori abian dela eta han parte hartzen duten pertsonen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun direnean, etxebizitza autonomo bat bilatzeko konpromisoa hartzen dutela beren gain. Horrelako ekimenek etxerik gabeko pertsonen gizarteratzeko programa batean parte hartzen laguntzea dute helburu.

Tamalez, horrelako egoerak nahiko ohikoak dira, eta **bestelako erantzuna ematea aurreikusi zen Lanbideren irizpideen aurreko dokumentuetan**. Horren harira, Lanbideren irizpideen 2014ko abenduako dokumentuaren hamaseigarren atalean jasotakoa aipatu beharra dago:

*“Algunos ayuntamientos ofrecen empadronamiento a través de los servicios sociales a personas en **situación de exclusión residencial grave** que residen habitualmente en el municipio y/o que no disponen de domicilio con permiso de habitabilidad para empadronarse.*

*(...) En estos casos aunque el padrón que nos presenta esa persona no corresponde a su domicilio real, ya que es un padrón ficticio, **podrán cobrar RGI, y Lanbide no entrará a valorar la temporalidad de estos padrones**, ya que los servicios sociales garantizan una intervención y seguimiento a través un plan individual de inclusión.*

*Las **notificaciones para los interesados se enviarán a la dirección del empadronamiento social** y los servicios sociales se responsabilizan de localizarles e informarles.*

*Para poder tramitar correctamente el expediente y determinar qué personas conforman la unidad de convivencia **se pedirá un informe al Servicio Social de base** que ha realizado el empadronamiento social, donde se expliquen las circunstancias que justifican este tipo de empadronamiento y qué personas constituyen la unidad familiar. La oficina no deberá valorar o cuestionar el informe, ya que se dará por bueno si así lo certifican desde Servicios Sociales, pero servirá de ayuda a la hora de tramitar el expediente de RGI.(...)”*

Erakunde honek nabarmendu egin behar du arazo hori, Lanbideren irizpideen aurreko dokumentuan jaso baitzen eta, gaur egungoan, berriz, ez delako ageri. Arartekoaren iritziz, enplegu erakunde autonomoak jarraitu behar luke gizarte-babeseko sistemaren interesekin eta helburuekin bat datorren interpretazio bat bultzatzen, etxebizitzarik ez duten eta gizarte-babeseko sisteman sartu behar duten askok aldi batez izaten dituzten igarokortasun-egoerei eusteko.

Horri lotuta, antzeko ezaugarriak dituen beste espediente batean (Arartekoak espediente horri emandako erreferentzia-zenbakia: 754/2016/QC), Lanbidek



erabaki zuen Gasteizko BULTZAIN elkartearen laguntza jasotzen zuen herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea. Orduko hartan, erakunde honek espedientea ebatzi zuen iradokiz berrazter zedila orduko kexagileari prestazioak eteteko erabakia¹; oraindik ez zaio erantzun iradokizun horri, eta, hortaz, ez dakigu Lanbidek kontu horren inguruko bere irizpidea aldatu duen.

3.- Aurreko atalean azaldu dugunez, kasu honetan, betekizunetako bakoitza ondoren aztertze aukera ematen duen xedapena aplikatzeak ekarri du, funtsean, Arartekoa ez etortzea bat Lanbidek kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu izanarekin.

Arartekoaren iritziz, enplegu erakunde autonomoak emandako arrazoieta jasotako gainerako kontuak baloratzeko orduan, aintzat hartu beharra dago eskatzailea, eskaera aurkeztu zuenean, hirugarren sektoreko erakunde baten gizarteratzeko programa batean parte hartze ari zela, eta, batez ere, pertsona horren erroldatzea soziala edo fikziozkoa zela.

Udal-erroldaren² funtzionamendua erregulatzen duten araudiak dira **fikziozko erroldatzea edo erroldatze sozialaren** oinarri nagusi, eta, zehatzago esanda, Idazkariordetzaren 2015eko martxoaren 16ko Ebazpena, Estatistika Institutu Nazionalaren buruzagitzak eta Eskumenak Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean emandako Ebazpena argitaratzekoa, udalek udal-errolda kudeatzean jarraitu behar dituzten jarraibide teknikoak buruzkoa. Azken ebazpen horren 3.3. atalak, etxebizitzarik ez duten pertsonak erroldatzeari buruzkoak, honako hau dio:

“Como se ha indicado anteriormente, el Padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio y de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio. En consecuencia, las infraviviendas (chabolas,

¹ Arartekoaren 2018S-754-16 Ebazpena, 2018ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea eteteko erabakia, erakunde honek pentsatzen baitu harrera-egoitza batean bizi diren titularrek ere jaso dezaketela prestazio hori.

² 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen; uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugapenari buruzko Erregelamendua.

caravanas, cuevas, etc. e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón.

Las situaciones más extremas pueden plantear la duda sobre la procedencia o no de su constancia en el Padrón municipal. El criterio que debe presidir esta decisión viene determinado por la posibilidad o imposibilidad de dirigir al empadronado una comunicación al domicilio que figure en su inscripción. En el caso de que sea razonable esperar que esa comunicación llegue a conocimiento del destinatario, se le debe empadronar en esa dirección.

La correcta aplicación de este criterio determina, por un lado, que se deba aceptar como domicilio cualquier dirección donde efectivamente vivan los vecinos, y, por otro, que pueda y deba recurrirse a un «domicilio ficticio» en los supuestos en que una persona que carece de techo reside habitualmente en el municipio y sea conocida de los Servicios Sociales correspondientes.

Las condiciones que deberían cumplirse para este tipo de empadronamiento son las siguientes:

- Que los Servicios Sociales estén integrados en la estructura orgánica de alguna Administración Pública o bajo su coordinación y supervisión.*
- Que los responsables de estos Servicios informen sobre la **habitualidad de la residencia en el municipio del vecino que se pretende empadronar.***
- Que los Servicios Sociales indiquen la dirección que debe figurar en la inscripción padronal y se comprometan a intentar la práctica de la notificación cuando se reciba en esa dirección una comunicación procedente de alguna Administración Pública.*

En estas condiciones, la dirección del empadronamiento será la que señalen los Servicios Sociales: la dirección del propio Servicio, la del Albergue municipal, la del punto geográfico concreto donde ese vecino suela pernoctar, etc.

Evidentemente, para practicar este tipo de inscripción no es necesario garantizar que la notificación llegará a su destinatario, sino simplemente que es razonable esperar que en un plazo prudencial se le podrá hacer llegar.”

Informazio-eskaeran aurreratu zenez, kexagileak ez zuen behar adina baliabide ekonomikorik errentamendu-kontratu bat aurkeztu ahal izateko; beraz, IZANGAI erakundera jo zuen, eta hark fikzioso erroldatzea edo erroldatze soziala eman zion, EAEko gizarte-babeseko sisteman sartzeko aukera izan zezan.



Arartekoaren iritziz, gizarteratzeko programa batean parte hartzen duten pertsonen diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzea bat dator Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) helburuarekin; hauxe dio lege horren 1. artikulua:

“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.”

4.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu aurretik gutxienez urtebetez bizikidetzaren unitate independente bat osatzearen betekizuna betetzen dela egiaztatu ezin izateari dagokionez, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatzen du lege hori) 16.a) artikulua betebeharrak hau ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko eskatzen direnen artean: “bizikidetzaren unitate bat osatzea. Erregelamendu bidez zehaztuko da unitateak zenbat denbora lehenagotik eratua behar duen eta zer salbuespen egon daitezkeen”.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan zorroztz jasotzen da bizikidetzaren unitateen modalitate posibleen eraketa. Gainera, aipatutako 4. atal honako hau xedatzen du: “Eusko Jaurlaritzak, bere ekimenez edo beste Administrazio Publiko batzuek proposatuta, bizikidetzaren unitate kasu edo suposizio berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egiturako eredu bilakaeraren arabera” ez da zerrenda itxia, eta gaur arte aurreikusi ez diren bizikidetzaren unitate berriak sar daitezke.

Horrenbestez, bizikidetzaren unitate independentea osatzearen betekizunari emandako tratamenduak duen eragina dela-eta, ahal den heinean, kasu bakoitzean tartean diren inguruabar pertsonalak kontuan hartu behar dira. Beraz, aztergai dugun kasuan, baloratu beharra dago prestazioak eskatu dituen pertsonari fikziozko erroldatzea edo erroldatze soziala duela, eta egiaztatu dela gizarteratzeko programa batean aktiboki parte hartu duela.

Izan ere, udalerrin batean fikziozko erroldatzea edo erroldatze soziala izanik, interesdunak egiaztatzen du benetan han bizi dela; horixe adierazten du kexagileak



diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaerarekin batera aurkeztutako udalaren baimenean aurreikusitako horrelako errolatzeei eusteko ezinbesteko baldintzak: *“Dicha autorización se condiciona a la realización de una entrevista que deberá llevar a cabo la Trabajadora social del Servicio Social de Base correspondiente, y al cumplimiento de las citas concertadas con la misma”*.

5.- Ebazpen honetan zehar egindako gogoetak aintzat hartuta, eta **ondorio gisa**, Arartekoak jarraitzen du esaten kasu hau ez dagoela dekretuaren 5.3. artikuluan, premia larriko egoeran dauden pertsonen buruzkoan, aurreikusita. Kasu hau, aldiz, dekretu beraren 6.2. artikulua xedatutakoak subsumitu beharko luke; izan ere, legezko azken xedapen horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko aukera ematen dio irabazi-asmorik gabeko erakunde baten ostatuan errolatuta dagoen pertsona bati (erakundeak gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua duen erabiltzailearen jarraipen pertsonalizatua egiten du).

Era berean, eskaera aurkeztu aurreko urtean zehar bizikidetzaren unitatea zehazteari dagokionez, Arartekoak azpimarratu du jo beharra dagoela, kasu honetan, errolatzea fikziozkoa zela, izaera soziala zuela, eta egiaztatu zela azken hiru urteetan eskatzailearen benetako bizilekua Bilbon egon zela.

Amaitzeko, erakunde honek aditzera eman nahi du, Lanbidek gizarte-prestazioak erregulatzen dituen araudiaren inguruan egin duen interpretazioak **askoz garrantzi handiagoa eman behar ziola eskatzaileak pairatzen zuen gizarte- eta bizileku-bazterketa larriko egoerari**. Horren helburua da, oro har, **etxerik ez duten pertsonak bazterketa zurrumbilo horretatik atera daitezten, inguruabar horrek eragiten baitu bazterketa euren gizarteratze-prozesuen baitan**. Bestela esanda: diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzen duen araudian xedatutako baliabide formalak eskuratu ezin dituzten pertsonen gizarte-bazterketa betikotzea saihestu nahi da.

Finean, funtsezkoa da etxerik ez duten pertsonen gizarte-estaldura emateko beharraren inguruan hobeto hausnartzea, jardun hori askoz hobeto egokitzen zaielako sistemak, osotasunean, lortu nahi dituen helburuei. **Bestalde, eskumena duen administrazioak interpretazio horren berri du, erakunde horren irizpideen aurreko dokumentuan hori jaso baitzen**.

Finean, funtsezkoa da etxerik ez duten pertsonen gizarte-estaldura emateko beharraren inguruan hobeto hausnartzea, jardun hori askoz hobeto egokitzen zaielako sistemak, osotasunean, lortu nahi dituen helburuei. **Bestalde, eskumena**



duen administrazioak interpretazio horren berri du, erakunde horren irizpideen aurreko dokumentuan hori jaso baitzen.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, iradokizun hau egin nahi diogu sailari:

IRADOKIZUNA

Arartekoak iradokitzen du berrazter dadila kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu izana. Izan ere, erakunde honek uste du, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen arabera, irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde baten gizarteratzeko programa batean parte har dezakeela interesdunak.